

## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Gure bezeroak komunitate jakin bateko pertsonak izango dira, itsuentzako makilak egiten ditugunez, itsuak izango dira gure bezero bakarrak .Horrek ez du esan nahi gutxi salduko dugunik, itsuentzako zuzenduta dauden enpresek eta beste denda internazional askok gure produktuetan interesatuta egongo dira, hori bai, enpresa hauek itsuentzat espezializatuta dauden enpresak izan beharko dira, enpresa arrunt batek ez dituelako itsuentzako gailuak saltzen. Azkenik, GKE-ak izango ditugu, hauek itsuentzako GKE-ak izango dira eta hauei prezio erdian salduko dizkiegu makilak, horrela ez dute hainbesteko dirurik gastatu beharko eta guk diru apur bat irabaziko dugu itsuei laguntzen diegun bitartean.

Gainera, nahiz eta haiek ezin izango duten ikusi, makiak kolore eta pisu ezberdinekoak izango dira, horrela bakoitzak nahiago duen makila hartu ahalko du.